

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak HIESaren aurkako Munduko Egunarekin bat egiten du

HIESaren aurkako elkarteek, Udalaren laguntzarekin, sentsibilizazio-ekimen eta gaixoei elkartasuna agertzeko jarduera ezberdinak antolatu dituzte

Donostiako Udalak hainbat ekintza antolatu ditu Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkarteekin batera, asteartean, abenduaren 1ean, ospatuko den HIESaren aurkako Munduko Egunaren harira. Udalak programaturiko ekintzetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu hiritarrak.

Aldi berean, begizta gorriak dituzten kartelak jarriko dira Udaletxeko fatxadan, udal ekipamenduetan eta hainbat garraio publikotan. Egun horretan ere Udaletxea gorritz argizatuko da.